



## ONDESTE-ZUNDA JARTZEA

### ONDESTE-ZUNDA

- Jarri pazientea ezkereranzko alboko etzaneran, zunda errazago sartzeko.
- Jarri lubrifikatzailea zundaren puntan, errazago jartzeko eta ondeste-narritadura prebenitzeko.
- Altxa pazientearen eskuineko ipurmasaila, uzkia ondo ikusteko.
- Txertatu zundaren punta uzkian, eta sartu 5tik 10 cm-ra bitarte, zilborrerantz.
- Zunda sartzean, esan pazienteari geldo eta sakon arnasteko, edo bestela, indarra egiteko, eginkariak egiten ari balitz bezala. Horrela, uzki-esfinterra erlaxatuko du, eta zunda errazago sartuko da.
- Haizeak husteko baldin bada, eman masaje arina sabelean. Bildu zundaren muturra oihal xurgatzaile batean, badaezpada eginkari-hondarrak aterako balira.

### NOLA IZAN MATERIALA EGOERA ONEAN?

1. Alta hartzean edo kanpo-kontsultan, erizainak behar duzun materiala emango dizu.
2. Ondeste-zunda 7 aldiz arte erabil daiteke, baldin eta higiene-egoera onean badago. Horrela ez bada, bota materiala.
3. 50 cc-ko xiringa erabat hondatu arte erabil daiteke.
4. Ondeste-zunda ur eta xaboiz garbitu behar duzu, eta gero, ura sartu behar diozu 50 cc-ko xiringaz, arrasto guztiak garbitu arte.
5. Gorde material guztia eskuoihal batean bilduta, hurrengo erabilera arte.